

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida



www.zizurkil.com

urtarrila 2010 77. Ezenbakia 11. ENEGUA

Aurrera Plazak 3 20159 ZIZURKIL 943 692 495



Ikastaroak:

Informatika Ikastaroak:

10 ordutako ikastaroak eskainiko dira KZ Gunean.
Egunean bi ordu eta astean bi egunetan eskainiko dira (19:00etatik-21:00etara).
Talde bakoitzean gehienez 8 pertsona onartuko dira.
Ikastaro bakoitzaren prezioa: 35 euro.
Egutegia:
Power Point ikastaroa: otsailaren 1, 3, 8, 10 eta 15.
Blog-en sorrera: martxoaren 1, 3, 8, 10 eta 15.

Izen emateak Aurrera Plazako Udal Bulegoetan. Tel. **943 692 495**

KZ GUNEA:

ONA TXARTELA: Urtarrilean astearte eta ostegunetan ONA TXARTELA egiteko aukera izango da KZGunean 9:00etatik 13:00etara.
Gainera, ONA TXARTELA erabiltzeko ikastaroak antolatuko dira bertan.

TUTORETZAK: urtarrilaren 20an 16:00etatik 20:00etara. **Aprobetxa ezazu txartela ateratzeko aukera hau!**

Euskera

TEODORO HERNANDORENA VII. IPUIN LEHIAKETA: Abenduaren 18an eman ziren sariak:

A MAILA: Jorge Castellano "Hitz egiten zuen patinetea", 7 urte-Villabona eta Sara Iriarte "Maitasunaren Hitza", 8 urte-Villabona.

B MAILA: Asier Ascaray "Lagun Minak", 11 urte-Andoain eta Jon Jauregi "Oilar kantaria", 10 urte-Andoain.

C MAILA: Nagore Arin "Batuketak egiten ez zekien umea", 12 urte-Villabona eta Ignacio Balerdi "Ametsak bete egiten dira" 12 urte-Villabona.

D MAILA: Unai Ugartemendia "Hiltzailearen hilketa", 14 urte-Villabona eta Unai Urkola "Hegan egiten duen arranoa. Inoren semea" 15 urte-Zizurkil.

E MAILA: Ander Leon "Motel Montecarlo", 39 urte-Larraul eta Oskar Otermin "Badiako bakarriketak", 26 urte-Irura.

Zorionak guztiei! Aurtengoan 390 ipuin aurkeztu dira. Esker bereziak Zizurkilgo Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotza Ikastolari, aurkezturiko lanengatik eta baita Andoain eta Villabonako ikastetxeei ere.



ATXULONDOKO AZKEN OLAGIZONA ipuina :

Leire Zubeldia zizurkildarrak idatzi eta Juan Luis Landak ilustratutako ipuinak salgai jarraitzen du Udaletxe, Udal Bulego eta liburutegian 5 euroren truke. **Zatoz zure alearen bila!**

ZURE IZEN-ABIZENAK EUSKAL GRAFIARA ALDATU NAHI?

Orain erraza eta azkarra da. Aurrera Plazako Udal Bulegoetan hurrengo agiriak aurkeztu behar dira:

- Errolda agiria (bertan egingo dizugu).
- Jaiotza agiri literala. Norberaren jaiotza agiria dagoen errejistroan ematen dute. Bake epaitegi bidez ere eska daiteke.
- N.A.N.aren fotokopia.
- Familia liburua (ezkondua egon edo seme-alabarik izanez gero).

Informazio gehiago: Euskara Zerbitzuan (**943 692 495** edo **bulegoa@zizurkil.com**)